

## Buletineko gaiak:

- Eskolaz kanpoko ekintzen oharrak
- Apartekoak

## Eskolaz kanpoko ekintzen oharrak

### 1. Haurtzaro Mendi Taldearen irteera, atzeratuta

Datorren igandean, otsailak 27, Haurtzaro Mendi Taldeak egin behar zuen irteera atzeratu egin dute.

**Jakin bezain laster jakinaraziko dizuegu ibilaldiaren data berria.**

## Apartekoak

### 1. Treba Gurasoak hitzaldia, otsailaren 28an



Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zuzendaritzak, udaletako haur, nerabe eta gazteen sustapen-zerbitzuen laguntzarekin, **Gipuzkoako gurasoen eskura jarri duen doako prestakuntza-ekimena** da TREBA. Programa honek haurren eta nerabeen bizikaltatea eta aukerak hobetu nahi ditu, gurasoak hezkuntza-gaitasunetan trebatuz.

Urrian pasatu genizuen formazioen katalogoa, eta Oiartzunen interesekoak suertatu diren gaiekin, lehen hitzaldia antolatu dute **Nola**

**landu sexualitatea haur eta nerabeekin?** izenburupean. Informazio guztia, jarraian:

- **Data:** otsailak 28, astelehena
- **Ordua:** 17:00
- **Lekua:** Udaletxeko pleno aretoan
- **Trebatzailea:** Nerea Lores Martikorena
- **Norentzako:** haur eta nerabeen gurasoentzako
- **Hizkuntza:** euskara
- **Doan**
- **Informazio gehiago:** 943 490 142 / [kirola@oiartzun.eus](mailto:kirola@oiartzun.eus)



## 2. Oiartzun Kantuan: abesteko aukera bihar plazan

Abestea gustuko baldin baduzue, hemen duzue aukera...

- **Eguna:** otsailaren 26a, larunbata
- **Ordua:** 12:30ean
- **Lekua:** Oiartzungo plazan (eguraldi txarra egiten badu, Kontzejupean)
- **Antolatzaileak:** Arte Eskola eta Oidultz Dultzaina Taldea

## 3. Eskuratu Ihoteen karta jolasa

OIARTZUNGO IHOTE KARTA JOLASA ez duzula? Lasai, oraindik eskuratzeko aukera duzu eta. Abaraxka

Ludotekan, Dixidun edo eta online <https://1545.eus/produktua/oiartzungo-ihotik-karta-jolasa/>

## 4. Aurtengo Zuhaitz Eguna, Altzibarren

- **Eguna:** martxoak 6, igandea.
- **Ordua:** Goizeko 10:30ean.
- **Non:** Altzibargo Kalebarria kalean.
- **Landatuko diren zuhaitzak:** haltzak, batez ere.
- **Helburua:** Ibaiertzeko landaredia berreskuratzea.
- **Ez da beharrezkoa aurrez izena ematea.**

